

Hernani C.R. Elkartea

historiala eta garaipenak

• *Hernani C.R. Elkartea*



Hernani C.R. Elkartearen ibilbidea 1965ean hasi zen, infantil mailako ekipo batekin, zelaia Hernaniko futbol taldearekin konpartitzen zuela eta bi entrenatzaile animosoren ardura-pean.

Zaharrenek ondo gogoan dituzte oraindik ere Landare Tokiko guardaren etxeko aldagelak, bigarren zelaia egokitzeko obrak, Urumea ibaia bideratzeko lanak eta Landareko instalazioen berregokitzapena.

Gaur egun, Foru Aldundiren eta Hernaniko Udalaren lankidetzari esker, Hernani C.R. Elkartek belar naturaleko bi zelai ditu eta, zelai ondoko eraikin batean, aldagelak, gimnasioa eta egoitza soziala.

Hernaniko C.R. Elkartea 1966an hasi zen parte hartzen txapelketa erregionaletan, *Grupo Norte* zelakoan. Geroago bigarren mailako txapelketan jokatu zuen, gaur egungo Ohorezko B mailaren parekoa, eta zenbait gorabehera pasa ondoren 1977/78 denboraldian Ohorezko mailara igo zen.

1978 - 1987 hamarkada urrezkoa izan zen klubaren historian. Estatu mailako goreneko mailan lau aldiz izan zen txapeldunorde; C.A.U. Madrid, Arquitectura (bi aldiz) eta U.E. Santboiana taldeak izan ziren irabazle. Txapelketa honetan, 83/84 denboraldian, honako ekipo hauek hartu zuten parte: U.E. Santboiana, Hernani C.R. Elkartea, C.A.U., Atletico San Sebastián, F.C. Barcelona, Valencia, Arquitectura, Cornellà, Getxo eta Tatami (Valentzia). Denboraldi horretan bertan senior mailako bigarren taldeak, *Satorrak*, oso maila onean hartu zuen parte Estatuko 2. mailan eta txapelketa erregionalean.

1987an Ohorezko mailatik jaitsi zen taldea eta Estatuko 1. mailan hartu zuen parte; *Grupo Norte-Levante* hartan ezagun zaharrak genituen eta gaur egun ere lehiakide ditugun hainbat talderekin aritu zen: Cornellà, Montjuic, Hospitalet, B.U.C., Les Abelles, Ordizia, Atletico San Sebastián, Gernika,... Lau urte onen ondoren, 1991n, zoritxarreko berregituraketa bitarteko, Estatu mailako kategoria galdu egin zuen taldeak eta Euskal Ligara jaitsi behar izan zuen, Irunek irabazi baitzuen promozio-partida.



Hernani C.R. Elkarteko senior ekipoa, 91/92 denboraldian.
Arg.: Hernaniko Udal Artxiboa.

Estatu mailan egin ziren hainbat berregituraketa zirela medio, eta taldearen kaltetan Federazioak hartu zituen hainbat erabaki zirela eta, Hernaniko C.R. Elkartek 13 denboraldi egin behar izan zituen Euskal Ligan eta 1. Mailan (Zaragozako Fénix taldeari irabazita igo zen 1999an), Estatu mailako taldeekin lehiatu gabe.

Azkenik, 2003/04 denboraldian Ohorezko B mailara igotzea lortu zuen A Coruña C.R.A.T.en aurka play offa irabazita.

2006/07an lehen aldiz sailkatu ziren Ohorezko mailara igotzeko play offetara. Ligan bigarren gelditu ziren, Alcobendas indartsuaren atzetik.

Joaneko partiduan Hernani C.R. Elkartek galdu zuen Sevillako Monte Cienciasen aurka (23-25). Sevilla aldera emaitza oso txarra eraman zuten eta han sevillarrak nagusi izan ziren (Monte Ciencias 48-11 Hernani C.R. Elkartea). Jubenilek Euskadiko Txapelketa irabazi zuten.

2008/09an bigarren play offa jokatu zuten. Ligan bigarren postuan bukatu zuten, Gernikaren atzetik. Play offean Atletico Portuense taldea egokitu zitzaion. Landaren 17-14 irabazi zuen joanekoan eta itzulerakoan 32-22 galdu zuten.

2009/10 urtean aldaketa nabarmenak egon ziren. Patrick Polidori eta Oier Agirrezabala klubera ailegatu ziren. Joxe Elozegi, zuzendari tekniko lanetara pasa zen eta Andoni Urkiolak taldea utzi zuen.

Ligan aurrena bukatu eta gero C.A.U. Valenciaren aurka jokatu zuen play offa. Valentzian 18-13 galdu zuen, eta Landaren play offa hernaniarren alde zegoenean, azken jokaldian Edu Sorribesek sartutako zigor golpe batengatik Ohorezko mailara igotzeko ametsa zapuztu egin zen; azken emaitza Hernani 12 - 9 C.A.U. Valencia izan zen.

Urte oparoa izan zen hau, jubenilak eta kade-teak txapeldun gelditu baitziren Euskadiko Txapelketan.

2011/12ko denboraldia: Ohorezko mailara igoera.

Historikoa denboraldi honek eman diguna.

Ohorezko B mailan entrenatzaile aldaketa egon zen, Gurutz San Miguelek taldea utzi zuen kadetetara pasatzeko eta Javier Seco *Boli* sartu zen aurrelarien entrenamenduak indartzeko. Iker Fernandez prestatzaile fisikoa ere hasi zen lanean, Oier Agirrezabalak taldea utzi baitzuen.

Ligan ez zuten areriorik izan. Hamalau partidua irabazi zituzten, hamahirutan *bonusa* lortuaz. Bi partidua faltan aurreneko postua ziurtatua zuten.

Play offetan Cisneros talde Madrildarra ego-kitu zitzaion, Ohorezko B mailako 2. taldean, bigarren gelditu baitzen C.R.C.-ren atzetik.

Joanekoan 23-16 galdu zuen Hernani C.R. Elkartek eta itzulerakoan, Landaren, nahiz eta 13-7 irabazi, ezin izan zuen kanporaketa pasa.

Oraindik beste aukera bat bazegoen igotzeko, baina beste lau partida jokatu behar izan zuen eki-

poak. BERA BERAk ere C.R.C.-ren aurka galdu zuen, Hernani C.R. Elkartek bezala, igotzeko lehenengo aukera. Oraingoan bietako batek aukera izango zuen Ohorezko mailako azkenaren aurka jokatzeko eta igoera lortzeko.

Joanekoa Landaren jokatu zuten eta 35-20 irabazi zuen Hernani C.R. Elkartek BERA BERAr, kanporaketa oso bideratuta utzita. Itzulerakoan 18na berdindu zuten eta Hernani pasa zen azken fasera, promozio fasera. Ohorezko mailako azken sailkatua Alcobendas izan zen eta joan-etorriko kanporaketa batean igoera edo maila mantentzea jokatu zuten bi ekipoe.

2012ko apirilaren 21ean jokatu zen Landaren joanekoa: Hernaniren alde 19-18 izan zen emaitza.

Puntu bakar batekin joan ziren hernaniarrak Madrilerara eta han 6-8 irabazi zuten: 25 urte eta gero Ohorezko mailan jokatzeko aukera irabazi zuten.

Jubenilak Euskadiko txapeldun gelditu ziren.

Aipatzekoa, Hernanik aurreneko neska taldea atera zuela denboraldi honetan.





Hernaniko C.R. Elkartek beti zaindu eta landu izan du harrobia. 1970az geroztik izan ditu Elkartek kadete eta gazte mailako taldeak, oso maila onean lehiatu direnak Euskal Ligan (Estatu mailako tituluren bat lortu ere egin dutenak) eta, era berean, senior ekipoaren jarraipena ziurtatu dutenak.

Errugbi Eskola 1990ean sortu zen Elkartearen barnean, 7-8 urtetik 14ra bitarteko neska-mutilekin. Etorkizuneko jokalariek hezitzea izan da eta da eskola honen helburua. Emaitzak lortzea baino, elkartasuna, solidaritatea eta adiskidetasuna bezalako baloreak lantzea helburu duen eskola da.



Hernani C.R. Elkarteko harrobia (1996/97 denboraldian). Arg.: Hernaniko Udal Artxiboa.



2010/11 denboraldiko infantil mailako ekipoa.



2012/13 denboraldiko jubenil mailako ekipoa.

Hernani C.R. Elkartearen garaipenak

Hernani C.R. Elkartearen garaipenen atalean, Gipuzkoako eta Euskadiko mailetan lortutakoez gain, beste hauek nabarmendu behar dira:

- **Seniorrak.**

Estatu espainiarreko Ohorezko mailan 4 aldiz txapeldunorde (1980, 1981, 1982, 1984) eta FER Kopan txapeldunorde (1978).

- **Gazteak.**

Bi aldiz estatu mailako txapeldun (2001, 2002) eta Espainiako Txapelketan bost aldiz finalista (2000, 2003, 2004, 2005, 2006). Zortzi aldiz izan dira Euskadiko txapeldunak.

- **Kadeteak.**

Estatu mailan txapeldunorde 1987an, hirugarren 1999ko Estatu Txapelketan eta Estatu mailan finalista hainbat urtetan: 2001, 2002, 2003, 2004 2005; eta Euskal Ligako txapelduna izan da sei aldiz.

- **Infantilak.**

Euskadiko txapeldun sei aldiz.

Laburbilduz esan dezakegu Hernaniko C.R. Elkartea, bere 47 urteko ibilbide luze bezain gorabeheratsuaren ondotik, bere une pozgarri eta ilunen ondotik, Hernaniko gazteen artean errotutako elkartea dela, Hernaniko herriaren babesa duela, eta Euskal Herri mailan bezala Estatuan eta nazioartean ere ezagutua eta aitortua dagoela.

2012/13 DENBORALDIAN HAUEXEK DIRA KLUBEKO ZENBAKIAK

MAILA (TALDEA)	JOKALARIAK
Senior (neskak)	21
Senior (mutilak)	68
Gazte maila (sub 20)	25
Kadete maila (sub 18)	14
Haur maila (sub 16).....	29

MAILA (TALDEA)	JOKALARIAK
Haur maila (sub 14).....	14
Alebin maila (sub 12)	9
Benjamin maila (sub 10)	22
Aurre benjamin (sub 8)	15
Guztira	217

MAILA	KARGUA	IZENA
Senior (mutilak) A	Entrenadorea	Polidori, Patrick
	Entrenadorea	Seco Botana, Javier
	Entrenadorea	Iraola Mezkita, Jon
	Delegatua	Irañeta Esnaola, Mikel
Senior (mutilak) B	Entrenadorea	Aldaregia Gomez, Beñat
	Entrenadorea	Gaztañaga Carrera, Asier
	Delegatua	Meaza, Juanan
20 urte azpikoak	Entrenadorea	Zapiain Garcia, Iban
	Entrenadorea	Gainzerain, Ibon
	Entrenadorea	Esna Gastesi, Jokin
	Delegatua	Iradi, Tibu
Senior (neskak)	Entrenadorea	Redin Gomez, Raul
		Elosegi Estebez, Joxe Krutz
		Azurmendi Gomez, Juan Luis
	Delegatua	Zubiria Gutierrez, Juanjo
18 urte azpikoak	Entrenadorea	Gutierrez Mitxelena, Jesus Maria
	Entrenadorea	San Miguel Larrañaga, Gurutz
	Delegatua	Agirrezabala, Xabier
16 urte azpikoak	Entrenadorea	Elosegi Estebez, Joxe Krutz
	Entrenadorea	Azurmendi Gomez, Juan Luis
	Delegatua	Navarro, Juanjo
14 urte azpikoak	Entrenadorea	Perez Caballero, Txema
	Entrenadorea	Etxeberria Lazaro, Igor
	Delegatua	gurasoak (txandaka)
12 urte azpikoak	Entrenadorea	Alduntzin Gastesi, Koldo
	Delegatua	gurasoak (txandaka)
10 urte azpikoak	Entrenadorea	Holgado Artola, Odei
	Entrenadorea	Etxeberria Ormaetxea, Javier
	Delegatua	gurasoak (txandaka)
8 urte azpikoak	Entrenadorea	Garmendia Ezponda, Oier
	Entrenadorea	Otaegi Imaz, Aritz
	Entrenadorea	Iñigo Ibabe, Beñat
	Entrenadorea	Antolin Sesma, Jon
"Power"	Entrenadorea	Fernández, Iker
Prestaketa fisikoa	Entrenadorea	Garmendia Ezponda, Oier

Entrenadoreak (guztira): 24

Delegatuak (eta gurasoak, guztira): 9